

EUSKARA

URTARRILA OTSAILA MARTXOA 2021



AZKUNA  
ZENTROA  
ALHÓNDIGA  
BILBAO

Bilbao

gizartea eta kultura  
garaikidea

## eszenAZ

Azkuna Zentroko  
arte eszenikoen  
denboraldia  
2020-2021

# Amalia Fernández

## *Expografía retrospectiva*

ZENTROKO HIRU ERAIKINAK  
FUNTSEZKOAK DIRA PIEZA HONEN  
DRAMATURGIARAKO, SEI PERFORMERREK  
ESPASIO HORIEK ERABILIKO BAITITUZTE  
MUSEO-INSTALAZIOAREN FORMATUKO  
HAINBAT OBRA AKTIBATZEKO, ZEINETATIK  
PUBLIKOA IBILI AHAL IZANGO DEN  
(SARTU-IRTENAK EGIN).



Amalia Fernández artistaren *Expografía retrospectiva (Atzera begirako expografía)* proiektuak gogoeta egiten du antzerki-museoaren kodeen transposizioari buruz eta norbanakoa (kasu honetan, performerra) erakusketako objektu bihurtzen denean gertatzen denari buruz.

Site-especific proiektu hau guztiz lotuta dago gertatzen den tokiarekin, «arkitektura material eta fisiko bezala, lantoki moduan eta obra ekoizteko leku gisa», esan du [Azkuna Zentroko Ikertzaile Az-kide](#) den [Isabel de Naveránek](#).

Hainbat egoera-objektu dira, performerrek aktibatutak, eta horien edukia, instalazio-bertsioan, artistaren pieza eszenikoan atzera begirakoa da. Amalia Fernández aspalditik dabil gogoetan dagoeneko eginda dituen piezen inguruan. Artistak «aurre egiten dio, nolabait, obra berriak ekoitziz beti aurrerantz doan proiektzio-joerari, eta, horren orde, landutako materialak berraztertu, eta horietan berritzailea dena ikusten du», azaldu du Isabel de Naveránek. «Lehenago arakaturia zuen 'atzera joatea' da», gehitu du.

Proiektua garatzeko, Amalia Fernándezek egonaldia egin du urtarilaren 22tik otsailaren 6ra bitartean, eta Azkuna Zentroko hiru eraikinetan esperimentatu du, jendeak ezagutzen ez dituen korridorez, horma-arte eta txoko ezkutu ugariz beterik baitaude. Egonaldi horretan eta espazioen ikerketa horretan oinarrituta, leku horietan berriz bisitatu ahal izango diren haren lehenagoko piezen zatiak erabakiko ditu.

Horrela, ondoz ondokoak ez diren zazpi orduko iraupena duen pieza honetan, Zentroko hiru eraikinak piezaren dramaturgiarako funtsezko gune bihurtzen dira. Bertan, sei performerrek espazio horiek erabiliko dituzte museo-instalazio formatuko hainbat obra aktibatuzeko, eta jendea haietan ibili ahal izango da (sartu-irtenak egin), museo erraldoi bat balitz bezala.



Otsailak 4 > 6  
Osteguna > Larunbata

Ibilbide performatiboa  
15€ / 12€ Az Txartelarekin

Sarrerak: Az Info eta  
[azkunazentroa.eus](http://azkunazentroa.eus)



#### FITXA ARTISTIKOA

**Agilea eta zuzendaria:**

Amalia Fernández

**Interpretatzaileak:**

Catherine Sardella, Nines Martin, Javier Cuevas, Maia Villot de Diego, Nazario Diaz eta Amalia Fernández.



Irudia: Archivo Artea



#### AMALIA FERNÁNDEZ

(Granada, 1970) Madrilen bizi da 1998tik. Jende askorekin ikasi duen arren, Mónica Valenciano du bere irakasletzat; 11 urtez lan egin zuen harekin El

Bailadero konpainian 2005ean, bakarkako lanean hasi zen, besteak beste, pieza hauekin: *Matrioshka*, *Kratimoshka* eta *En Construcción*; *El resistente y delicado hilo musical* eta *Expografía*. Horrez gain, elkarlanari ere ekin zion, hala nola Shichimi Togarashi eta Juan Dominguez artistekin eta Perita China eta Nilo Gallegorekin. Amalia Fernández, aldi berean, artei laborategietan irakasten aritzen da, eta lyengar yogako irakaslea ere bada.